

- 2.- Xakea irakastea.
- 3.- Kontzentratzeko estrategia pertsonalak sortzea eta garatzea, kontzentrazioaren iraupena eta indarra hobetzen saiatuz.
- 4.- Sormena eta arrazoiketa logikoa balioestea eta indartzea ikasleen artean, estrategia funtsezkoak baitira arazoak ebazteko.
- 5.- Prozedura egokiak erabiltzea informazioa biltzeko, blokeoak eta segurtasun-falta gainditu eta egoera ezezagunak ebazteko.
- 7.- Emozioen eta bulkaden kontrola indartzea, eta erabakien ondorioak behatzea eta aztertzea.
- 8.- Ataza berrietarako norberaren abileziak eta gaitasunak ezagutzea eta balioestea, eta diziplina orotan ezagutza-maila hobetzea.
- 9.- Arerioaren mugimendu posibleak kontuan hartu behar direnez, bestearen ikuspegia hartzeak duen garrantziaz jabetzea.
- 10.- Joko-arauak onartzen jakitea eta ikasleei haien nortasuna garatzen laguntzen saiatzea, eta ahaleginaren, nor bere mugak gainditzearen eta pentsamendu kritikoaren garrantzia ikusaraztea.

3.- IKASTAROKO MATERIALAK

- Mahaiko taula eta piezak
- Ordenagailua eta arbela
- Xakeari buruzko aldizkariak eta liburuak

4.- METODOLOGIA

Metodologia aurkikuntza bidezko ikaskuntzan eta ikaskuntza adierazgarrian oinarrituko da.

Proposatutako jarduerak une oro egokituko dira ikasle-taldearen heldutasun-mailara eta maila-kognitibora.

Saio guztietan hartuko dira kontuan iraupena, ikasle-kopurua, saioen maiztasuna, ikasleen ezaugarriak eta abar. Honela banatu ahalko dira:

1. Harrera beroa eta giro atsegina sortzea.
2. Lana taldearekin: sarrera-ipuina, bideo motibatzailea, beroketa, teoria, azalpenak, problemak eta abar. Azalpen orokorra hormako taulan eman behar da.
3. Banaka taulan lan egitea problemak ebazteko (ikastaro aurreratuenak).
4. Binakako lana: ikasitakoa praktikatzea banakako taularekin (ahal dela, xakekoa, baina ikasleak nahi ez badu, beste joko batzuetan ere aritu daiteke, esaterako, damak, lauko artzain-jokoan, puzzleekin, IQ).